

AIZARNAZABAL / Liburutegiko irakurle txartela laster jarriko dute martxan

Hilaren erdi aldera jarriko da txartela abian eta eskuratu ahal izateko eskaera orria bat bete behar da

Mikel Aiertza. Aizarnazabal

Hil honen erdi aldera liburutegiko txartela ateratzeko aukera izango dute herritarrek. Behin txartel hori ateratakoan, txartela erabili beharko da liburuak eskatzerakoan. Irakurle txartela eskuratzea doakoa da eta edozein adinekin eskatu daiteke.

Txartel hau eskuratu ahal izateko eskaera orria bete behar da liburutegian eta dagoeneko eskuragarri dago liburutegian.

ELSN sarearen barruan

Aizarnazabalgo liburutegia ELSN (Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala) sarean sarturik dago. Sare horretan daude eskualdeko herri gehienak. Sare honetan sartzearekin batera, informatizazio lanak egiten ari dira liburutegian. Lan horiek oraindik ez dituzte amaitu, baina martxoaren amaiera aldera bukatzea espero dute. Informatizazio lanak amaitzeko oraindik ñabardura batzuek falta dira. Liburu guztien izenak ordenagailuan sartuta daude eta kode horien irakurleak bakarrik falta direla adierazi du Idoia Gonzalez liburutegiko arduradunak.

Irakurle txartelaren abantailak

Irakurle txartel hau lortzeak abantailak ekarriko dizkio herritarrari. Behin liburu bat eskatzera joandakoan, txartel horrekin egingo dute eskaera. Eta eskatzen den liburua herriko liburutegian ez badago, ELSN sarean dagoen liburutegi batetik eska dezakete.

Irakurle txartela hartu eta bertara joan gaitezke, edo bestela, geure liburutegiko arduradunak eskaera bat egin diezaioke sareko beste liburutegiari, liburua bertara ekartzeko.

Puntu batzuk zehazteko

Txartel berria hil honen erdi aldera abian jartzera espero den arren, oraindik puntu batzuk zehazteko daudela adierazi du Gonzalezek.